

ISSN: 2530-6561
2025eko abendua
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Genero zeharkakotasunetik intersektzionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan

Uxue Zugaza Goienetxea
Miriam Ureta García

Genero zeharkakotasunetik interseksionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan

Uxue Zugaza Goienetxea

uxue.zugaza@ehu.eus

Miriam Ureta García

miriam.ureta@ehu.eus

Politika eta Administrazio Zientzien saileko irakasle eta ikerlariak,
eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak

Aurkibidea

1. Sarrera	8
2. Genero berdintasun politika publikoak eta genero zeharkakotasuna	9
2.1. Bazterretatik erdigunera: gender mainstreaming	9
2.2. Erakundetze prozesua: amaitu gabeko eraldaketa	10
2.3. Gender mainstreaming tresna hedatuak	12
3. Bestelako zapalkuntzen aitortza genero berdintasun politiketa	15
3.1. Testuinguru beste genealogia	15
3.2. Islak genero berdintasun politiketan	16
3.3. Erabilitako tresnak	19
4. Interseksionalitateak zer berri?	21
4.1. Bidegurutzearen metafora	21
4.2. Interseksionalitate politikoa, edo zapalkuntzen aldiberekotasuna kontuan hartuko duten politika publikoen beharra	22
4.3. Interseksionalitatearen aukera eraldatzaileak politika publikoetan: dekalogo bat	24
5. Ondorioak	28
6. Erreferentzia bibliografikoak	29

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Irati Labaien

Amaia Garcia Azpuru

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga

Xabier Gainza

Iker Etxano

Itziar Mujika

Unai Villena

Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Genero zeharkakotasunetik interseksionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan

Egileak: Uxue Zugaza Goienetxea, Miriam Ureta García

hegoak zabalduz - 42. zk. 2025eko abendua

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

EHU. Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91

hegoa@ehu.eus

EHU. Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza, 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64

hegoa@ehu.eus

EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 01 42 87

hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

[Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 4.0 Espainia.](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu)

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Genero zeharkakotasunetik interseksionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan

Laburpena: Dokumentu honek genero zeharkakotasunetik (*gender mainstreaming*) interseksionalitatera igarotzen den ibilbidea marrazten du. Genealogia feminista desberdinetan errotzen dira biak, eta bilakaera desberdinak izan dituzte pentsamendu feministan eta politika publikoen alorrean. Lehenengoak erakundetze maila trinkoa erakutsi du, eta horren zantzu dira azken hiru hamarkadetan genero zeharkakotasunak garatu dituen aplikaziorako tresnak (legedia, planak, generoaren arabera eraginari buruzko txostenak...) eta egiturak (berdintasun sailak, genero unitateak...). Garapen horrek aurrerapausoak ekarri baditu ere, haren joera teknokratikoak politika publiko eraldatzaile batetarako aukerak mugatu ditu. Aldi berean, genero politikek emakumeen arteko aniztasunaren aitortza egin dute historikoki, eta generoarekin batera aritzen diren zapalkuntza formei aurre egiteko *ad hoc* tresnak garatu dituzte. Pixkanaka-pixkanaka sentsibiltate hori interseksionalitate hitzarekin artikulatuko da genero politiketan. Baina politika publikoaren plano sinbolikotik haratago, zer berri dakar interseksionalitateak? Guk ulertzen dugun bezala, interseksionalitatea ez litzateke izan beharko soilik desberdintasun forma konplexuak izendatzeko kontzeptu berri bat, baizik eta genero-zeharkakotasunaren garapen eraldatzaile eta partaidetzazko batean sakontzeko aukera leihorik bat.

Gako hitzak: gender mainstreaming, interseksionalitatea, berdintasun politika publikoak, erakundetzea.

Abstract: This document outlines the journey from gender mainstreaming to intersectionality. Both take root in different feminist genealogies, and have evolved differently in feminist thinking and public policy. The first has shown a dense degree of institutionalization, which is evidenced by the policy instruments it has developed over the past three decades. Although this development has led to progress, its technocratic tendency has limited the chances of a transformative public policy. At the same time, gender policies have historically recognized diversity among women, and have developed ad hoc tools to deal with the various forms of oppression intersecting with gender. Gradually this sensibility will be articulated in gender policies with the concept intersectionality. But beyond the symbolic dimension of public policy, what changes does intersectionality bring to the practice of public policy? As we understand it, intersectionality should not only be a new concept for designating complex forms of inequality, but a window of opportunity for deepening a transformative and participatory development of gender mainstreaming.

Key words: gender mainstreaming, intersectionality, gender equality policies, institutionalization.

1. Sarrera

Dokumentu honek genero berdintasunerako politika publikoen bilakaera eta gaur egungo erronkak biltzen ditu. Horretarako, *gender mainstreaming* estrategiatik (gurean “genero zeharkakotasuna” modura itzulita)¹ interseksionalitateara igarotzen den ibilbidea marrazten dute hurrengo orriek. Genealogia feminista desberdinetan errotzen dira biak, eta bilakaera desberdinak izan dituzte pentsamendu feministan eta politika publikoen alorrean.

90eko hamarkadan, *gender mainstreaming*-a berdintasunerako estrategia politiko gisa adostu zen Nazio Batuen Erakundearen markoan. Proposamen horrek boterearen eta instituzio publikoen egiturazko eraldaketa bilatzen zuen, eta haren jatorri politikoa ezin da ulertu pentsamendu feministaren genealogia kontuan hartu gabe. *Mainstreaming*-aren instituzionalizazio prozesua deskribatu ostean, printzipio horrek Espainiako estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan izandako garapen espezifikoan arreta jarritz. Prozesu horrek diskurtsotik haratago doazen mekanismo operatibo eta estrategikoak garatu ditu. Horien artean genero eragina kontuan hartzen duten ebaluazioak daude (*ex ante* eta *ex post*), genero ikuspegitik garatutako aurrekontuak eta formakuntzak. Estrategia horrek aurrerapauso nabariak ekarri baditu ere, askok azpimarratzen dute eraldaketarako gaitasun mugatua izan duela. Horren arrazoi nagusien artean, genero politiken teknokratizazioa eta despolitizazioa aipatzen dira.

Puntu honetan lurreratu zen, hain justu, interseksionalitatea. Batez ere mende honetako lehenengo hamarkadatik aurrera, interseksionalitatea ohiko hitza bilakatu da berdintasun politiken hiztegian. Guk ulertzen dugun bezala, interseksionalitateka ez luke izan beharko soilik desberdintasun forma konplexuak izendatzeko kontzeptu berri bat, baizik eta genero zeharkakotasunaren garapen eraldatzaile eta parte hartzaile batean sakontzeko aukera leihorik bat. Horregatik, dokumentu honen bukaeran ikuspegi interseksionalak politika publikoetan lur hartzeko praktika eraldatzaileez hausnartzen dugu. Horrek, bereziki, administrazio barneko inertzia teknokratikoak kolokan jartzea eta parte hartze demokratikoan oinarritutako berrikuntza instituzionalak sustatzea eskatzen du.

1 Dokumentuan zehar *gender mainstreaming* eta genero zeharkakotasuna kontzeptuak erabiliko dira modu bereizezinean.

2. Genero berdintasun politika publikoak eta genero zeharkakotasuna

Lehenengo atal honetan genero zeharkakotasunaren garapenean jarriko dugu arreta: haren genealogia feministak, azken 30 urteetako erakundetze prozesuan zehar izandako mugarrak eta garatu dituen tresna instituzionalak. Horretarako fokua genero berdintasun politiken berebiziko estrategian jarriko dugu: *gender mainstreaming* edo genero zeharkakotasuna.

2.1. Bazterretatik erdigunera: gender mainstreaming estrategiaren genealogia politikoa

Gender mainstreaming delakoa, gurean genero zeharkakotasuna gisa itzulia, funtsezko berdintasun estrategia politiko gisa sendotzen hasi zen 1990eko hamarkadatik aurrera. Oinarrian, genero zeharkakotasunaren xedea da politika publiko guztien jardunean genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea. Berdintasunaren ikuspegia "gailendutako ikuspegia", "ohikoa" edo "guztiok ezaguna" izatea: ingelesez *mainstream* eta euskaraz *zeharkakoa*.

Haren sustraiak mugimendu feministaren barruan emandako eztabaidetan kokatzen dira, baita hirurogei, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetako intelektualen ekarpenetan ere. Etapa luze horretan, feminismoek –batik bat feminismo erradikalak, desberdintasunaren feminismoak, liberalak eta sozialistak–, emakumeak esparru publiko ofizialek sistematikoki baztertuak eta kanporatuak zirela salatu eta botere instituzionalen egiturak eraldatzeko beharra jarri zuten agerian.

Betty Friedanek, *Feminitatearen Mistika* (1963) liburuan, "izenik ez duen problematika" ikusgarri bihurtu nahi izan zuen, fokua jarri etxeko eta familiako esfera pribatuan AEBko klase ertain eta altuko etxeko andreak bizi zuten giltzapetzean. Lan horri esker, Friedan feminismo liberalaren aitzindarietaz jotzen da: eremu publikoan sartzea oztopatzen duten muga legal eta ohiturazko arauetan topatzen du emakumeen menderakuntzaren jatorria. Ikuspegi horretatik, aldaketa legalek bermatuko dute gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

Korrante horrek, ordea, arazoaren markoa ez du patriarkatuaren eta sexu-genero sistemaren existentzian kokatzen. Irakurketa hori feminismo erradikalak, diferentziaren feminismoak eta feminismo sozialistak garatu zuten. 80ko hamarkadaren bukaeran, Carole Patemanek liberalismoaren kritika feminista jorratu zuen. Alde batetik, agerian jarri zuen esfera publiko eta pribatuaren gainean garatutako ulkerak, "bata bestearengandik isolatuta egongo balira bezala"; eta, bestetik, gizon eta emakumeen arteko "eskubide desberdintasuna, sexuen arteko ezberdintasunak naturalizat jotzetik" eraiki izana (Pateman, 1988: 68, 75). Desberdintasun horiek estatuaren jatorriaren mitoarekin batera erakundetuta daude: kontratu sozialak emakumeak esfera publikotik kanporatzen dituen "kontratu sexualak" ere badira.

Diferentziaren feminismoaren ikuspegitik hurbil, Iris Marion Youngek genero desberdintasunak "bidegabeak" direla adierazi zuen, "menderakuntza babesten eta erreproduzitzen duten baldintza instituzionalak betikitzen dituztelako eta, gainera, ahalduntzea oztopatzen dutelako" (Young, 2002: 34). Horren ondorioz, "neskek eta emakumeek jendaurrean gutxiago hitz egiteko joera dute (...) eta emakumeek, egoera horietan hitz egiten dutenean, informazioa emateko eta galdetzeko joera dute, iritziak eman edo eztabaida bat hasi beharrean" (Young, 1996: 123).

Gauzak horrela, zenbait ikuspegi ideologikotatik, autore horiek agerian utzi nahi izan zuten eremu publiko ofiziala diferentziaren bazterkeria eta kanporaketaren bidez eraiki dela. Genealogia horiek genero desberdintasunei aurre egin nahi izan dieten politika publikoetan islatu dira.

Laura Gómez Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasun teknikariaren hitzek argi eta garbi identifikatzen dute ibilbide historiko hori: “Genero berdintasunerako politikak arazo sozial baten identifikaziotik sortzen dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun historikotik” (elkarrizketa sakona, 2025eko irailaren 4a) eta arazo horri egotzitako kausa zein izan den, estrategia batzuk edo besteak jarri dira martxan. Abiapuntu horretatik, genero zeharkakotasunaren aurrekari izan diren bi fase estrategiko bereizten ditu.

Lehendabiziko etapa batean, berdintasun politiken markoa tratu berdintasunaren aldeko apustua izan zen, AEBko diskriminazioaren aurkako legerian oinarrituta. Neurri horren diagnostiko inplizitua zen emakume eta gizonen arteko desberdintasunen kausa legezkoa zela, alegia, eskubide berdintasunik eza. Baina laster ikuspegi horren mugak identifikatu ziren: desberdintasunaren jatorria ez dago eskubide berdintasun faltarekin bakarrik lotuta, baizik eta lan merkatuan emakume eta gizonen duten partaidetza desorekatuarekin ere. Irakurketa horrekin, agerian jarri zen emakumeen mendekotasun ekonomikoa desberdintasunaren adierazpen bat ere badela. Horrela, berdintasun politiken bigarren etapa honetan ekintza positiboko neurriak hartu ziren, emakumeen lan merkaturatzea errazteko bereziki.

Irakurketa kritikoen arabera, politika publikoek –bi etapa horietan–, botere sistemak zeharkatzen dituzten egiturazko arazoei irtenbideak eman beharrean, “kasurik okerreanean, tunel efektua sortzen dute, beren ekintza problematika isolatu batean zentratuz”, alegia, muga legalak eta soldatapeko lanean sartzea, “inguruko faktoreak kontuan hartu gabe” (Bonet, 2003: 36). Ikuspegi horretatik desberdintasunaren kausen diagnostikoa zabaltzen da: emakumeek pairatzen duten legearen aurreko diskriminaziotik haratago, eta lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasunetatik haratago, genero desberdintasunaren jatorria egiturazkoa da. Horrek esan nahi du gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak eredu sozial bat duela oinarrian, emakume eta gizonen artean baliabideen banaketa desorekatu bat bultzatzen duena: desorekak daude errentan, batak eta besteak duten denboran, ordezkaritza politikorako dituzten aukeretan, estatusen eta gizarteak euren ekarpenei emandako aitortzan, etab. Kritika horretatik abiatzen da berdintasun politiken hirugarren fasea, estrukturalagoa: genero zeharkakotasuna.

2.2. Erakundetze prozesua: amaitu gabeko eraldaketa

Mugimendu feministaren ekarpenetatik abiatuta, *gender mainstreaming*-a nazioarteko erakundeek ofizialki onartutako estrategia politiko gisa adostu zen Emakumeari buruzko Laugarren Mundu Konferentzian (Beijing, 1995). Topaketa honek inflexio puntu bat markatu zuen, eta kontsentsua erabatekoa da genero zeharkakotasunean Bejingeko adierazpenak izan duen eraginari dagokionez. Europa mailan estrategia horren inplementazioa aztertzeke, konferentzia egin eta urte gutxi batzuk geroago genero zeharkakotasunari buruzko espezialisten talde bat sortu zen Europako Kontseiluaren markoan. Talde horrek genero zeharkakotasunaren abiapuntuko definizio bat proposatu zuen, gerora hedapen handia izan duena:

“Genero zeharkakotasuna politika publikoen prozesuen (ber)antolaketan, hobekuntzan, garapenean eta ebaluazioan datza, normalean politika publikoen garapenean inplikaturik dauden aktoreek genero berdintasunaren ikuspegia txerta dezaten, politika guztietan, politikaren maila guztietan eta politikaren fase guztietan” (*Conceptual Framework, Methodology and Presentation of Good Practices, Gender Mainstreaming*, 1998: 15).

Hori dugu, beraz, genero zeharkakotasunaren instituzionalizazioa ulertzeko abiapuntua, estatu mailan erabateko aitortza izan duena. Horren ezaugarria da berdintasuna bermatzera bideratutako gobernu mekanismoak hedatzea. Neurri horiek ez dira soilik sinbolikoak (hau da, arazoa diskurtso mailan formulatzea), baizik eta substantiboak (politika publikoen diseinu eta formulazioa) eta operatiboak ere (politika horien inplementazioa). Instituzionalizazio prozesu horrek Europar Batasunaren behin

betiko bultzada jaso zuen Amsterdamgo Itunaren bidez (1997). Bertan, genero zeharkakotasuna printzipio juridiko lotesle gisa ezartzen da, honako hau adieraziz: "Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua finkatuko du bere ekintza guztietan" (3.2 artikulua)..

Mugarri horien ostean, Espainiako estatuan urte gutxi batzuk igaro ziren genero zeharkakotasuna legez aitortu arte. 2000. urtetik aurrera, zenbait Autonomia Erkidegok lehenengo berdintasun legeak onartu zituzten. Horien artean, 2005. urtean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako 4/2005 Legea aitzindaritzat jotzen da, eta askok adierazi dute genero zeharkakotasunaren arloko arau esparru aurreratuenetako bat dela. Lege horrek ezartzen dituen neurrien artean, hauek nabarmentzen ditugu: (a) Politika publiko guztietan genero ikuspegia txertatzeko legezko betebeharra (2.2 artikulua); (b) programa, plan edo politika orok genero eragina txosten baten bidez aztertzea eta (c) kontratu publikoetan, laguntzetan edo dirulaguntzetan berdintasun klausulak zehaztea. 1988an sortutako Emakumearen Euskal Institutua, Emakunde, berdintasun-politikak koordinatu, sustatu, ebaluatu eta aholkatzeaz arduratzen den organo autonomoa da, eta funtsezko rola du Euskadin *gender mainstreaming*-a martxan jartzeko. Administrazio zentrolean, printzipio hori 2007. urtean onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Efektiborako 3/2007 Lege Organikoan txertatu zen; zehazki, arauaren 15. artikuluan.

Mugarri instituzional horiek mende berriaren hasieran ezarri baziren ere, ibilbide historiko luzeago batean kokatu behar ditugu. Alegia, antolatutako emakumeen, mugimendu feministaren eta erakundeetan sartutako aktibista feministen genealogietan: aurrerapen politiko eta juridiko horiek ezin dira ulertu borroka haiek gabe. Horren sinbolo batzuk dira dibortzioaren legea 1981ean; Emakumearen Institutuaren sorrera 1983an, Madrilén; Euskadin Emakunde, bost urte geroago; eta abortuaren despenalizazioa 1985ean. Berdintasun formaleko politiketatik *gender mainstreaming*-era igarotzeko, Berdintasunerako Plan Estrategikoak onartu ziren eta autonomia erkidegoetan berdintasun egiturak sortu, nahiz eta, garapenari dagokionez, mugak izan zeharkakotasunean sakontzeko.

Illo horretan, Sylvia Walbyk ohartarazten du zeharkakotasuna instituzionalizatzeko gainazaleko integraziotik haratago joan beharra dagoela, eta erakunde publikoen eraldaketa sakonerantz aurrera egin beharra dagoela: "kontua ez da bakarrik genero ikuspegia txertatzea politika publikoetan, baizik eta erakundeen lehentasunak eta prozedurak birformulatzea" (2005: 322). Horretarako, beharrezkoa da politika publikoaren definizioa bera ere ikuspegi feminista batetik berrinterpretatzea, eta politika publikoa honela ulertzea: "Botere harremanek eta balio sistemek egituratutako prozesu erabakitzaile bat", erabaki hori izanik "arazotzat jo den egoera baten aurrean egiten dena, eta egiten ez dena" (López, Peterson, Platero, 2014: 162). Ikuspegi horrek politika publikoaren irismena zabaltzen du: arreta ez da jarri behar soilik erakundeek erabakitzen duten horretan, baizik eta erabakitzen ez duten horretan ere. Baita erabakiaren atzean dagoen arazoaren definizioan ere.

Hain zuzen ere, arazoa definitzeko erak asko baldintzatuko du *mainstreaming*-aren irismena: arazo publikotzat zer hartzen den, arazoak nola eraikitzen diren, nola saihesten diren edo erakundeek modu aktiboan arazoa bera ikusezin nola egiten duten. Bestela esanda, "arazotzat irudikatzen den horrek zehaztuko du aldatu behar dena zer den" (Bacchi, 2009: 2). Izan ere, genero desberdintasunaren arazoari dagokionez "interpretazio marko" (*policy frames*) desberdinak egoteak eragina du politiken formulazioan. "Generoa ez da beste aldagai bat bezala gehitu behar. Hasieratik arazo bihurtu behar da arazoaren formulazioan generoa nola agertzen den" (Bustelo eta Lombardo, 2007: 4, 13). Ikuspegi horretatik, ez da nahikoa politikak emakumei egokitzea; logika feminista batetik abiatuta eraldatu behar dira.

Gauzak horrela, zeharkakotasunak *statu quo* instituzionalaren eta erakunde publikoen ekintzaren berrikuspen kritikoa eskatzen du. Horregatik, *gender mainstreaming*-aren arrakasta ez dago soilik lege eta erakunde esparruen edo plan estrategikoen mende (Espinosa-Fajardo eta Bustelo, 2019), faktore politikoaren mende baizik, zehazki, "berau aplikatzen dutenen borondate politikoaren eta gaitasun instituzionalaren mende" (Lombardo eta Meier, 2006: 161). Alde horretatik, zeharkakotasuna

formalizatzearekin batera beharrezkoak dira konpromiso politiko iraunkorra, ezagutza tekniko eta baliabide egonkorrak.

Horri guztiari partaidetzaren garrantzia gehitzen dio Laura Gómezek: "Genero zeharkakotasunaren garapenerako beharrezkoa da erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeak eta erakunde feministak ere inplikatzeko" (elkarrizketa sakona, 2025eko irailaren 4a). Ideia horrek bat egiten du Nancy Fraser-en planteamenduekin, zeinak ohartarazten baitu justizia sozialera bideratutako politikek barne hartu behar dituztela errekonozimendua, birbanaketa eta ordezkaritza. Haren hitzetan, "erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea ezinbesteko baldintza da justizia sozialerako" (2008: 18). Genero zeharkakotasuna eta sakontze demokratikoa lotzen diren momentu honetan, partaidetzaren dimentsioa baldintza bat da epe luzerako prozesu instituzional eraldatzaileei eusteko (Squires, 2007), abiapuntutzat hartuta parte hartze hori "askotarikoa den gu bateri zuzendu behar zaiola" (Ahedo, 2017: 10).

Eraldaketa arako gaitasun hori, ordea, mugatuta dago, "joera neoliberalak" (Martínez-Palacios, 2021) bultzatzen dituen teknokratizazio eta despolitizazio logikengatik. Erronka da genero zeharkakotasuna marko eraldatzaile, parte hartzeko eta feminista batean oinarritzea. Ulertzen dugu feminismoa ez dela sail bat (Gelambí, 2015), mugimendu feministak ondo azpimarratzen duen bezala, "politika publikoak feminista bihurtzeko gaude hemen, eta ez feminismoa programa politikoan kokatzeko" (Ureta, 2022: 125). Azken atalean azalduko dugunez, gure ikuspegia da intersektionalitatearen markoak aukerak ematen dituela genero zeharkakotasunaren norabide eraldatzailea hauspotzeko. Baina horretara iritsi baino lehen, genero zeharkakotasunaren ibilbidea azaltzen jarraitu behar dugu.

2.3. Gender mainstreaming tresna hedatuak: esanetatik ekintzetara

Gender mainstreaming-aren garapen sinboliko, substantibo eta operatiboak esku hartzea eskatzen du maila instituzionalean (antolamendu egiturak eta barne mekanismoak) eta maila estrategikoan (ikuspegi politikoa). Maila estrategikoan, genero zeharkakotasunak aldaketa politikoa bilatzen du politika publikoaren alor guztietan, diskurtso-, erakunde-, kultura- eta harreman-esparruen eraldaketa sakon baten alde eginez (Alonso, 2015). Horrekin lotuta, Laura Gómezek maila erlazionalak genero zeharkakotasunaren garapen instituzionalean duen garrantzia azpimarratzen digu, "elementu arrazionalak", alegia, burokratikoak, eta "elementu erlazionalak", humanoak, bereiziz: "Elementu arrazionalak zeharkako politikaren hezurdura dira, baina elementu erlazionalak haren arima dira". Ildo horretan, zeharkakotasunaren bultzadak "konbentzitzea baino gehiago limurtzea" eskatzen du, eta "bestea emozionalki kezkatzen eta mugiarazten duen hori ezagutzea" (elkarrizketa sakona, 2025eko irailaren 4a).

Elementu arrazionalen artean, *gender mainstreaming*-aren tresnarik ezagunen artean hiru nabarmenduko ditugu: generoaren araberako eraginaren ebaluazioak, genero ikuspegia duten aurrekontuak eta formakuntza.

- Generoaren araberako eraginaren ebaluazioek aukera ematen dute politika publikoen ondorio bereiziaz emakume zein gizonetan *ex ante* (hau da, neurri bat martxan jarri aurretik) eta *ex post* (behin neurria martxan jarrita) aztertzeko. María Busteloren arabera, ebaluazio horiek ez dituzte soilik eragin kuantifikagarriak neurtu behar. Halaber, egiturazko desberdintasunak indartu edo eralda ditzaketen inpaktu sinboliko, erlazional eta normatiboak kontuan hartu behar dituzte. Horregatik, ebaluazioa ez dagokie emaitzei soilik: "Politikek hainbat gizarte-taldetan dituzten balio, lehenetsun eta ondorio bereizgarriak" ere zalantzan jartzen ditu (Bustelo, 2005: 74).
- *Gender mainstreaming*-a integratzeko hedatutako bigarren tresna generoa kontuan hartzen duten aurrekontuak dira. Haien helburua da baliabide publikoen esleipenean egon daitezkeen generoaren araberako alborapenak zuzentzea, gastu publikoak emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina dituela ikusaraziz.

- Genero zeharkakotasunaren hirugarren tresna politika publikoak diseinatu eta ezartzen dituztenei zuzendutako prestakuntza eta trebakuntza dira. Lombardo eta Meierren ustez, *mainstreaming*-aren arrakasta "aplikatzen dituztenen borondate politikoaren eta gaitasun instituzionalaren araberakoa da" (2006: 161), eta horrek ezagutza teknikoa eta konpromiso politikoa eskatzen ditu.

Azkenik, Laura Gómezek tresna horien ikuspegi zehatza ematen du. Esperientzia teknikotik abiatuta, arkitektura instituzional egonkortu baten garrantzia nabarmentzen du. Arkitektura horrek sustapen egiturez (berdintasun arloak edo zerbitzuak, esaterako), sailen arteko eta sail barruko koordinazioez, plangintza eta kronograma zehatzuez eta "gaiaz ezagutza handia" (elkarriketa sakona, 2025eko irailaren 4a) duten langile kualifikatuez osatuta egon beharko luke, betiere helburu politiko batzuk jarraituz.

Guk horiek aipatu ditugu, baina genero zeharkakotasunak hiru hamarkada hauetan baliatu dituen tresnak haratago doaz. Alonsok nabarmentzen duen bezala (2015: 36-37), *gender mainstreaming*-aren tresna instituzionalen hedapenak askoz ere gehiago hartzen du. Estrategia horren garapenean ekoitzi diren tresnak oso askotarikoak dira, haien izaerari eta helburuei dagokienez. Gauzak horrela, eta laburpen gisa, genero-zeharkakotasunaren tresnak taula honetan laburbilduta daude:

1. taula. Gender mainstreaming-ari lotutako tresnen sailkapena, Alba Alonsoren arabera (2015)		
Tresnaren izaera	Helburuak	Adibideak
Sarrera	<i>Mainstreaming</i> -a eta haren tresnak txertatzeko euskarri politiko-normatiboa eskaintzea	Araudia, Planak, Programak, Kanpainak
Analisia	Desberdintasunen inguruko ezagutza hobetzea. Politika publikoen berrikuspena sustatzea.	Genero eraginaren txostenak, formazioa, generoaren arabera bereizitako estatistikak
Sentsibilizazioa	Genero desberdintasunen inguruko sentsibilizazioa hobetzea. Politiketan genero arriskua ulertzea sustatzea.	Kanpainak, Gidak, Mintegiak
Antolaketa	Genero-ikuspegia txertatzea errazten eta sustatzen duten egiturak garatzea.	Genero unitateak, Sailarteko batzordeak, Erakundeen arteko batzordeak, Erakunde espezializatuak
Parte hartzea	Gobernuz kanpoko eragileen iritzia eta/edo gomendioak jasotzea.	Parte hartze kontseiluak, Aholkularitza organoak
Aplikazioa	Politika publikoetan genero arrakala arintzeko neurri zehatzak txertatzea.	Ekintza zehatzak (emakumeentzako neurriak, gizonetakoentzakoak, kuotak, lehentasunezko tratua); Tratu berdintasuna (diskriminazioaren aurkako neurriak)

Iturria: Alonso, 2015: 36-7 or.

Tresnak, ordea, bitartekoak dira, eta ez helburuak. Horregatik, Alonsok berak azpimarratzen du tresna horiek benetako eragina izateko zailtasun handienetariko bat marko diskurtsibo feministen eta logika administratiboen arteko deskonexioan datzala. Kritika horren atzean dagoen premisa argia

da: zeharkakotasuna eduki politikorik gabeko ariketa teknokratiko bihur daiteke praxi feministan oinarritzen ez bada (Walby, 2005). Hau da: zeharkakotasuna lausotzeko arriskua benetakoa da, baldin eta ez bada agenda politiko feminista batekin artikulatzen, eta agenda horrek hertsiki prozedurazkoa dena gainditzen ez badu. Izan ere, justizia soziala ortzi muga duen borroka feminista administrazio eraginkortasuneko tresna bihur daiteke (Squires, 2005), helburu feministak diluituz, kooptatuz eta kontrako helburuen alde eginez ere (Verloo, 2005). Ados gaude, beraz, Alba Alonsorekin (2015: 198), esaten duenean *mainstreaming*-aren erronka ez dela teknikoa bakarrik, erabat politikoa baizik.

3. Bestelako zapalkuntzen aitortza genero berdintasun politiketan

Aurreko ataletan jaso ditugun pentsalari feministek emakumeak esparru publiko ofizialetik kanporatzea eta baztertzea eragiten zuten gizabanako ideal hegemoniko-unibertsalaren kritikan sakondu zuten. Batez ere generoan oinarritutako botere antolaketaz mintzo baziren ere, autore horiek bestelako botere sistemak aitortu –batik bat arraza eta klasea– eta erakunde desberdinetan birsortzen direla salatu zuten. Edonola ere, agerikoa da genealogia horrek ez dituela arazo bihurtzen egitura horien arteko elkarreragin konplexuak. Horretarako, beste toki batzuetara begiratu behar dugu.

1982an irakurritako hitzaldi batean, Audre Lordek esplizitu egin zuen “emakume” kategoria ez dela zoezer monolitikoa edo homogeneoa: “Ezin da borroka bakar bati lotutako auzirik egon, ez baitugu auzi bakarreko bizitzarik bizi” (1982: 138). Esaldi horrek erakusten du generoa, klasea, arraza, sexualitatea eta normatibotasunaren ertzetan kokatzen gaituzten bestelako zapalkuntza-egiturak aldi berean aritu daitezkeela, eta horiei erantzun integralak eman behar zaizkiela.

40 urte geroago, kontzeptu batek, interseksionalitateak, Audre Lordek eta beste hainbat militantek, kulturegilek eta akademikok hainbat modutan aldarrikatutako ideia hori xurgatu du. Horrek gauza onak eta txarrak ekarri ditu. Abantailen artean, monografiko honetan tratatzen ari garena: aurreko atalean azaldutako genero zeharkakotasunaren estrategiari konplexutasuna gehitu dio, berehalako erantzunak onartzen ez dituzten galderak plazaratuz. Alegia, nola erantzun diezaiokegu politika publikoetatik modu zatikatuan izendatu baina aldi berean aritzen diren desberdintasunei? Balio digute generoa zeharkakotzeko politika publikoek emakume arrazializatuen edo dibertsitate funtzionala duten emakumeen problematikei erantzuna emateko?

Interseksionalitatearen ideian, eta beronek politika publikoetan izan ditzakeen gauzatzean sakondu baino lehen, historikoki zapalkuntza egituren arteko elkar eraginak izendatzeko eta horietan esku hartzeko existitu izan diren kontzeptu eta tresnak arakatuko ditugu. Edukien aurkezpena bereizi nahi izan dugu, lehenengo hau eta hurrengo atalean interseksionalitatea, uste dugulako ikuspegi interseksionalak nolabaiteko aldaketak txertatu ahal dituela desberdintasunei aurre egiteko aurrera eramaten diren politika publikoetan.

Hau da: tarteko atal honetan *mainstreaming*-aren tradizioan kokatzeko modukoak diren ekarpenak eta tresnak jasotzen dira. Hala, sekzio honen helburua da erakustea genero politika publikoek izan dutela sentibiltasun bat emakumeen arteko aniztasunarekiko, galdera hauetatik igaroz: nola instituzionalizatu da emakumeen aniztasun hori, orduan? Nola gauzatu dira emakumeen esperientzia multidimentsionalak politika publikoetan? *Gender-mainstreaming*-aren garapenari aitortza eginez, interseksionalitatearen ideian lurreratzen lagunduko digun tarteko atala da hau. Izan ere, genero zeharkakotasunaren eta interseksionalitatearen nozioaren artean gisen eskala zabala dago, eta horien genealogiak, testuinguruak, prozesuak eta tresnak ere aintzat hartzea merezi du.

3.1. Testuinguru beste genealogia

Bai ezkerreko aktibismoek bai akademiak zapalkuntza sistemen arteko elkarreraginak izendatzeko hainbat kontzeptu erabili izan dituzte. Izan generoa, arraza edo klasea, zapalkuntza egitura bakarra aldarrikatzen duten ikuspegi mugak osatu nahian oinarritzko ideia hau landu dute: zapalkuntzetan desberdintasun egitura batek baino gehiagok eragiten dutela, eta konplexutasun hori kontuan hartu behar dugula desberdintasunei aurre egiteko martxan jartzen ditugun diagnostiko eta proposamenetan. Pentsamendu eta borrokarako eremu hori ezagutza tradizio, tradizio militante eta tokian tokiko historia politikoz oso desberdinez elikatu da. Beraz, oinarritzko ideia batek –alegia, zapalkuntza egituren arteko

elkarreraginaren ideiak– garapen desberdinak izan ditu bere testuinguru historiko, politiko eta sozialaren arabera. Premisa horri forma eman dioten ekarpenak agertoki geografiko, historiko eta politiko partikularrek baldintzatu dituzte. Horregatik esango dugu zapalkuntza formen arteko kontzeptualizazio eta esku hartze ereduak izendatzeko orduan *testuinguru beste genealogia* dagoela. Eta *genealogiaz* hitz egin beharrean, aproposagoa dela *genealogiez* hitz egitea.

Ibilbide zabal horretan mugarri gutxi batzuk izendatu ahal ditugu, onartuta mugarri horiek aipatzea beste batzuk isilpean gordetzea dakarrela, eta, ondorioz eta halaberharrez ere, botere harremanek zeharkatzen dutela ariketa hau. Bostoneko Combahee River Kolektiboko kideek, 70eko hamarkadan idatzitako manifestuan, *“Interlocking Systems of Oppression”* terminoa erabili zuten beren bizitzetan arrazismoa eta sexismoa aldi berean aritzen zirela salatzeke, eta borroka integratuen beharra proposatzeko. Abya Yalako feminismo komunitarioetatik, *“entronque patriarcal”* delakoak adierazten digu emakume indigenen zapalkuntzetan pentsatzen dugunean, patriarkatua eta legatu koloniala bereizi ezin direla (Paredes, 2018).

Emakume afroamerikarren aurka bereziki zuzentzen ziren indarkerietan –bortxa edo nahitaezko antzuteak– fokua jarri nahian, XX. mendeko Feminismo beltzen ibilbidean kokatutako hainbat idatzitan emakumea eta beltza izateak zekartzen *“arrisku bikoitzez”* (*double jeopardy*) aritu zen Frances Beal (1960). Haren aurretik hainbat autore marxistak emakume afroamerikarren klase esplotazioa ere salatu zuten, gerora Angela Davisen 80eko hamarkada hasieran argitaratutako *Emakumeak, arraza eta klasea* lanean jaso bezala (1981). Hain justu garai horretan, Deborah Kingek (1988) *“arrisku bikoitzen”* kontzeptua *“arrisku anizkoitzetara”* (*multiple jeopardy*) zabaltzen du, agerian jarri sexismoa, arrazismoa eta klasismoaren elkarreraginaren efektu *“biderkatzaileak”* (*multiple*). Zapalkuntzen ikuspegi kuantitiboaz gain, desberdintasun kualitatiboa ere nahi zuen jarri agerian Kingek, hau da, esklabotza garaian emakume beltzen aurka zuzendutako sexu indarkeria ezin zela ulertu arraza eta klase zapalkuntzak kontuan hartu gabe. Ibilbide horretan kokatuko da, halaber, aurrerago azalduko dugun bidegurutzearen metafora, interseksionalitate kontzeptuaren bidez ezagutarazia (Crenshaw, 1989).

Gaia Espainiako estatura hurbilduz, migratu duten emakumeek, pobretutako emakumeek, emakume ijitoek edota desgaitasun egoeran dauden emakumeek aurre egin behar dituzten *“diskriminazio anizkoitzen”* arrastoak topatu ditzakegu, bai diktadura ostean ezagutzera eman ziren lehenengo lanetan, baita mugimendu sozialetan zirkulatzen hasi zen *“literatura grisean”* ere (Platero, 2012). Euskal Herrian ere kontzeptuak eragina izan du, eta nazio, genero eta klase zapalkuntzen uztarketa *“zapalkuntza hirukoitzean”* islatu da euskal testuinguruan (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015).

3.2. Islak genero berdintasun politiketan

Mugimendu sozialetatik eta intzidentzia esparru kontrahegemonikoetatik politika publikoetara dauden distantziak alde batera utzita, aurreko atalean deskribatutako errealitate horrek –alegia, sarritan genero desberdintasunak bestelako desberdintasun egitura batzuekin batera ulertu behar direla–, nolabaiteko oihartzuna izan du berdintasun politika publikoetan.

Idea horren aitortza sinboliko edo diskurtsiboa historikoa izan da berdintasunaren alorrean ekoitzi diren politika publikoetan, bai Estatu mailan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Aurreko atalean ikusi dugun bezala, 80ko hamarkadan demokraziak ezarritako eskubide sozialen lehenengo haziak genero politiken aurreneko pausoak dituzte fruitu, eta garai horretatik topa ditzakegu egoera zaurgarrian dauden emakumei erreferentziak testu eta diskurtso politiko desberdinetan. 1988an Emakunderi sorrera eman zion dekretua horren adibide bat da. Bertan azaltzen zen:

“3. atala. – Egitekoak. Honako hauek izango dira Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundearen egitekoak: (...) g) Emakumearen eta *bereziki laguntza beharrik handienera aurkitzen direnen aldeko zerbitzugintza sustatzea*”².

Genero politiken eta politika sozialaren arteko lerrokatzetik uler dezakegu generoa eta klasearen arteko gurutzaketa aintzat hartzen duen hurbilpen hori. Hala izanda, jasotako legearen atal hau baztertze egoeran zeuden pobretutako emakumeen aldeko gizarteratze politiken inguruko adierazpen politiko eta instituzionalekin osatu zen 80ko eta 90eko hamarkadetan zehar.

Ordutik hona, genero politiketan izan diren garapenak aldaketak ekarri ditu, erabilitako terminologia barne. Horrela, zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei egindako hasierako erreferentzia haiek zabaltzen joan ziren, generoarekin batera bestelako zapalkuntza egituren eragina izendatzen duten kontzeptuak ere aniztuz: aipatu ziren landa-eremuko emakumeak, zaurgarritasun egoeran dauden emakume kolektiboak, aniztasuna, diskriminazio anizkoitzak eta, kasu batzuetan ere, interseksionalitatea. Jarraian aurkeztuko den taulak 2002-2023 bitartean estatuan onartu diren berdintasun legeetako printzipio orokorretan kontzeptu horiei egindako aipuak jasotzen ditu.

2. Taula. Estatuan onartu diren berdintasun legeetako printzipio orokorretan diskriminazio anizkoitzei, interseksionalitateari eta antzeko kontzeptuei egindako aipuak	
Legea onartutako lurraldea eta urtea	Erreferentziak printzipio orokorretan
Nafarroa. 2002, 2019	2019. Diskriminazio anizkoitzak (3. artikulua), landa eremuko emakumeak, emakume migratuak, desgaitasunak dituzten emakumeak edo gutxiengo etnikoetako emakumeak (4.m artikulua).
Valentzia. 2003	Erreferentziarik ez.
Gaztela eta Leon. 2003, 2007	2007. Pobretzearen feminizazioa (4.2 artikulua), landa eremuko emakumeak (4.7 artikulua).
Galizia. 2004, 2015	Erreferentziarik ez.
Euskadi. 2005, 2012, 2023	2005. Diskriminazio anizkoitzak (3.1 artikulua), aniztasuna (3.3 artikulua). 2023. Interseksionalitatea (3.8 artikulua).
Estatua. 2007	Erreferentziarik ez.
Andaluzia. 2007, 2018	2007. Diskriminazio anizkoitzak (4.6 artikulua). 2018. Interseksionalitatea.

2 Otsailaren 5eko 2/1988 LEGEA, “Instituto Vasco de la Mujer/ Emakumearen Euskal Erakundea” sortarazteari buruzkoa. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/1988/03/8800484a.pdf>

Legea onartutako lurraldea eta urtea	Erreferentziak printzipio orokorretan
Murtzia. 2007, 2019	Erreferentziarik ez.
Kanariak. 2010, 2019	2010. Aniztasuna (4.13 artikulua), pobreziaren feminizazioa (4.2 artikulua), landa eremuko emakumeak (4.7 artikulua).
Gaztela-Mantxa. 2010	2010. Aniztasuna (1.3.d artikulua), [generoarekin batera] bestelako diskriminazioak bat egiten duten kolektiboak (1.3.e artikulua), zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak edo emakume kolektiboak (4.d artikulua).
Asturias. 2011	Erreferentziarik ez.
Extremadura. 2011	2011. Interseksionalitatea (3.11 artikulua), landa eremuko emakumeak (3.13 artikulua).
Katalunia. 2015	2015. Diskriminazio anizkoitzak (2. artikulua), diferentziak ikusgarri egin eta aitortu (3.6 artikulua), pobreziaren feminizazioa (3.7 artikulua).
Balearrak. 2016	2016. Diskriminazio anizkoitzak, esplotazio sexualerako salerosketaren biktima diren emakumeak (h artikulua).
Aragoi. 2018	2018. Interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitzak (3.6 artikulua), pobreziaren feminizazioa (3.14 artikulua).
Kantabria. 2019	2019. Diskriminazio anizkoitzak, landa eremuko emakumeak (3.c artikulua).
Errioxa. 2023	2023. Interseksionalitatea (4. artikulua).
Erreferentziak guztira, Estatuan onartutako 17 berdintasun legeetan	Beste batzuk= 9 Diskriminazio anizkoitzak= 7 Interseksionalitatea= 4 Aniztasuna= 2

Iturria: Zugaza, 2023: 71tik moldatua

Taula honek aurreko atalean azaletik aipatu zen alderdi bat zehazten du: *gender mainstreaming*-aren estrategia politikoaren barruan aurreikusten direla emakume talde jakin batzuei zuzendutako ekintza positiboko neurri zehatz eta espezifikoek aplikazioa. *Mainstreaming*-ak urteetan zehar izan duen bilakaerak sentsibiltatea erakutsi du zapalkuntza ugarienganako, apurka-apurka interseksionalitatearen ideia hurbilduz.

EAEko kasu zehatzean, 2005ean onartutako berdintasun legea izango da bere printzipio orokorretan "diskriminazio anizkoitzak" izendatzen aurrenekoa. Horrek aurrekari bezala funtzionatu du: marko juridikoan diskriminazio edo desberdintasun anizkoitzen erabilera gailenduko da zapalkuntza egituren

artean existitzen diren elkarreraginak izendatzeko, "aniztasuna, "interseksionalitatea" eta halako formulen gainetik. Aldiz, berdintasunaren arloan ekoizten diren bestelako testuetara jotzen badugu –adibidez, berdintasun planak–, formula hori ez da hain maitatua, eta "interseksionalitatearen" eta "aniztasunaren" presentziak gora egiten du nabarmen.

Edonola ere, desberdintasun anizkoitzen erabilera bereziki nabaria izan da 2015etik aurrera onartzen diren berdintasun legeetan. Tendentzia horrek erakusten digu formula hori ondo egokitzen dela testu juridikoetan. Modu berdintsuan, desberdintasun anizkoitzekin batera legediak emakume talde jakinei zuzendutako aitortza sinbolikoa ere nabarmen jasotzen du: kasurako, landa eremuko emakumeak, migratutako emakumeak eta pobrezia feminizazioa (ikus. 2. taula). Horrek bat egiten du atal honen hasieran aipatutako ideiarekin: berdintasun politiken hasiera-hasieratik, egoera zaurgarriagoak pairatzen dituzten emakume kolektiboak presente egon dira, behintzat adierazpen publikoetan.

3.3. Erabilitako tresnak

Aitortza diskurtsibo horrek nolabaiteko gauzatze praktikoa izan du. Autore batzuek (Zugaza, 2023; Alonso et al, 2012) zenbait mekanismo identifikatu dituzte diskriminazio anizkoitzen markoa estatu mailako berdintasun politiketan txertatzeko. Mekanismo horiek zehaztasun maila desberdinak dituzte eta intentsitate gradu desberdinekin eraman dira aurrera. Hemen azpimarratu nahi duguna da guztiak direla genero politiken arloan ibilbide luzea duten neurriak. Eta, hartara, desberdintasun anizkoitzekin lotutako neurriak genero zeharkakotasunaren estrategian ezagunak diren tresnen bidez kanalizatu ohi direla.

1. *Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioak.* Bereziki, arraza eta sexualitatearekin lotutako politikek bultzada jaso dute Europar Batasunak arlo horietan onartutako araudia dela eta. Horrek berdintasunaren arkitektura generotik haratago zabaltzea erraztu du, eta, horrenbestez, marko normatiboan pixkanaka integratu dira LGTBI kolektiboak eta arrazializatutako pertsonak pairatzen dituzten zapalkuntza formak.
2. *Politika sektorialak baliatu, eta horietan genero ikuspegia zeharkakotu.* Estrategia horrek administrazioaren sailkako antolaketa baliatzen du emakume taldeei zuzendutako politika sektorialak bultzatzeko. Adibidez, gizarteratze politiketan genero ikuspegia txertatuz, bazterketa egoeran dauden emakumeetan fokua jartzen da.
3. *Desberdintasun forma bakoitzari aurre egiteko eskumena duten egituren arteko koordinazioa sustatu.* Egitura horiek izan daitezke administrazio bateko sailak (adib., Berdintasun saila eta Enplegu saila), edo berdintasun egitura bereziak (adib., emakumeen institutuak, gazteriaren institutuak, ijitoen kontseiluak, tratu berdintasunerako eta diskriminaziorik eza sustatzen duten erakundeak, etab.).
4. *Talde politikak edo politika espezifikak diseinatu, genero politiken barruan.*

Emakume kolektibo jakinek pairatzen duten zaurgarritasun berezian esku hartzeko eta, oro har, diskriminazio anizkoitzetan esku hartzeko, emakume taldeei zuzendutako politika espezifikak dira. Kasu honetan, ekintza positiborako neurriak, emakumeei ez ezik, zaurgarritasun egoera berezian dauden emakumeei ere aplikatzen zaizkie. Adibidez, *ad hoc* emandako dirulaguntzak, edota emakume kolektibo jakin batzuen partaidetza bultzatzeko kuotak partaidetza kontseiluetan.

Jarraian Nafarroako Berdintasun Kontseilutik ateratako adibidea jasotzen da, zeina aipatutako neurrien adibide den.

3. Taula. Nafarroako Berdintasun Kontseiluko osaeran aniztasuna sartzeko erabilitako kuotak

4. artikulua. Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren osaera. (...) 4. Honako hauek izanen dira kide: (...)

- c) Emakume bat *emakume adintsuen ordezkari*, Nafarroako Adinekoen Kontseiluak proposaturik aktibo dauden adinekoen elkarte nafarren artetik.
- d) Emakume bat *emakume gazteen ordezkari*, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak proposaturik aktibo dauden gazteen elkarte nafarren artetik.
- e) Emakume bat *emakume migranteen ordezkari*, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak proposaturik aktibo dauden migranteen elkarte nafarren artetik.
- f) Emakume bat *desgaitasunen bat duten emakumeen ordezkari*, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluak proposaturik desgaitasun mota desberdinak biltzen dituzten elkarte eta erakunde nafarren artetik.
- g) Emakume bat *emakume ijitoen ordezkari*, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak proposaturik aktibo dauden ijitoen elkarte nafarren artetik.
- h) Emakume bat *landa eremuko emakumeen ordezkari*, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak proposaturik landa eremuko emakumeen elkarte artetik (aktibo dauden eta ordezkaritza handiena duten elkarte artetik).
- i) Emakume bat *LGTBI taldeko emakumeen ordezkari*, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak proposaturik.
- j) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten 4 *sindikatu*en ordezkari bana. Horretarako, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean, langileen ordezkarien, enpresa batzordeetako kideen edo Administrazio Publikoetako organoetako kideen gutxienez % 10 izan behar dute.

Iturria: 15/2018 FORU DEKRETUA, apirilaren 11koa, maiatzaren 9ko 22/2012 Foru Dekretua aldatzen duena³.

3 Hemendik hartuta: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2018/86/0>

4. Interseksionalitateak zer berri?

Orain arte, berdintasun politiketan generoarekin batera elkarreraginean aritzen diren zapalkuntza egitura anitzenganako sentsibilitatea presente egon dela agerian jarri nahi izan dugu. Maila sinboliko-diskurtsiboan, kezka hori hitz desberdinekin artikulatu da. Eta maila substantibo eta, batez ere, operatiboan, genero zeharkakotasunaren tresnak erabili izan ditu diskurtsoa ekintza bilakatzeko. Horrek erakusten du genero zeharkakotasunaren eta ikuspegi interseksionalaren inplementazioaren artean grisen eskala bat dagoela. Atal honetan, ordea, interseksionalitateak genero politika publikoei egin ahal dizkion ekarpenen inguruan hausnartu nahi dugu. Atal honi izena ematen dion galdera hartuta abiapuntu (zer berri dakar interseksionalitateak?), ondorio honetara heltzen gara: idealki, uste dugu interseksionalitateak genero zeharkakotasunaren garapen eraldatzaile eta partaidetzazko batean sakontzeko marko bat eskaintzen duela. Ideia hori garatu baino lehen, hitzari (eta ez ideari) sorrera eman zion metafora azalduko dugu, eta, ostean, planteamendu honek politika publikoen testuinguruan izan duen lurreratzea.

4.1. Bidegurutzearen metafora

80ko hamarkada bukaeran, Kimberlé Crenshaw jurista afroamerikarrak bidegurutze baten metafora proposatu zuen emakume beltzek jasaten zuten genero eta arrazaren aldibereko diskriminazioa salatzen. Hogeita hamar urte geroago, irudi hori zapalkuntza forma guztien aldibereketasuna deskribatzeko modu ezagunenetarikoa bat bihurtu da. 2009an argitaratu zen elkarrizketa batean autoreak zioen: "Konpromiso aktibistak bultzatu ninduen lan hau egitera. Eta lan hartan egin nuen interseksionalitatearen erabilera metafora bat besterik ez zen izan" (Guidroz eta Berger, 2009, Collins, 2019: 25ean jasoa). Metafora horren bidez, emakume afroamerikarrak babes juridikoaren itzaletan uzten zituen diskriminazioaren aurkako legeen puntuitsuak salatu nahi zituen.

Crenshawren ekarpena Arrazaren Teoria Kritikoaren eskolan kokatu behar da, eta, aldi berean, AEBko unibertsitateetan feminismoarekin eta arrazismoaren aurka konprometitutako irakasle masa kritiko baten pixkanakako osaketarekin. Testuinguru horretan, Crenshaw General Motors enpresatik kaleratutako emakume afroamerikar batzuen kasua aztertzen du. Langile horiek enpresa salatu zuten, argudiatuz euren kaleratzeek sexu eta arraza diskriminazioa zituztela oinarri. Epaileak salaketa bertan behera utzi zuen, azalduz emakume afroamerikarrak ez zirela, bere horretan, diskriminatutako klase bat. Ondorioz, sexu edo arraza diskriminazioaren aurkako legediak aurreikusten dituen babeserako tresnak ezingo zitzaizkien aplikatu. Arazoa hau zen (eta jarraitzen du izaten): emakume beltzen diskriminazio esperientzietan generoak eta arrazak aldi berean eragin zezaketela. Kasu hauek, ordea, ez zuten erantzun juridikorik: legeak diskriminazioa onartzen zuen desberdintasun iturri bakarra salatzen bazen: generoa edo arraza. Hau da, legeak diskriminazioa aitortzen zuen jatorri bat eta bakarra aipatzen bazen. Aurrerago Crenshaw azalduko zuen bezala, bere asmoa, interseksionalitatearekin, ez zen izan teoria bat sortzea, baizik eta fokua jartzea izenik gabeko injustizia forma honetan:

"Diskriminazioaren aurkako zuzenbidearen egitura konplexuan horrelako oker handia nolatan gerta zitekeen pentsatzen sortu zen 'interseksionalitate' terminoa. Zuzenbideko irakasle gazte nintzen aldetik, ikusezintasun hori legean nola islatzen zen zehaztu nahi nuen. (...) Interseksionalitatea, orduan, feminismoak, arrazakeriaren aurkako aktibismoak eta diskriminazioaren aurkako zuzenbideak egin beharko luketena egiteko ahalegin bat zen –arrazak eta genero-zapalkuntzaren esperientzia toki askotatik etor zitezkeela azpimarratzea–, arazoak errazago eztabaidatu eta ulertzeko." (Crenshaw, 2019: 18)

Zapalkuntzen konplexutasun horren ulerkera erraztu nahi izan zuen, beraz. Nola eta bidegurutzearen metaforaren bidez.

Metafora honetan Crenshawk emakume afroamerikar langileak (General Motorsen aurkako salatzaileak, hain zuzen) errepide-elkargune baten erdian dagoen pertsona batek jasaten duen talka "bikoitzarekin" alderatzen ditu: bi etorbide desberdinetatik datozen bi autok, "sexua" eta "arrazaz", aldi berean erdigunean dagoen oinezkoa jo eta zauritzen dute. Bi kotxeen arteko istripua aldi berean gertatu denez, ezinezkoa da oinezkoari eragindako zaurien jatorria argitzea: bi autoen aldi bereko inpaktuaren ondorioz egin dira. Baina egoera horrek, babeserako arrazoi bat izan beharrean, zauritutako pertsonaren aurka jokatzeko du. Istorio honetan istripuaren arduradun bakarra ez dagoenez, gidariek ez dakite zein mediku asegururi deitu eta, ondorioz, inork ez du bere gain hartuko eragindako lesioen gaineko erantzukizunik.

Metafora hau oso argigarria da zapalkuntza egitura desberdinen arteko aldibereko efektuak ikusarazteko. Horrekin batera, zapalkuntzen kausa bakar bat identifikatzeko gai ez izateagatik desberdintasun egoeran dagoen pertsona bati arreta ez emateak dakarren bidegabekeria ere ikusarazten du. Eta hori zen benetan larriena: planteamendu hori ez zela Kimberlé Crenshawren asmakeria bat izan, benetakoa ziren epai judizialean oinarritutako irakurketa kritiko bat izan zen. Alegia, sexuaren eta arrazaren aldi bereko diskriminazioa alegatzen zuten emakumeen eskaerak sistematikoki baztertzen zituzten epaietan oinarritutakoa. Interseksionalitatearen metaforak izena jarri zion legearen puntu itsu horri. Hortik aurrera, kontzeptuak zuzenbidetik haratago doazen diziplinetara eta AEBtik kanpoko herrialdeetara egin zuen bidaia; ostean, akademiatik administrazio publikoetara, harik eta Estatuko eta Hego Euskal Herriko politika publikoetan lur hartu arte.

4.2. Interseksionalitate politikoa, edo zapalkuntzen aldiberekotasuna kontuan hartuko duten politika publikoen beharra

Urte batzuk geroago argitaratutako beste testu batean (1991), Kimberlé Crenshaw agerian jarri zuen marko juridikoan ez ezik, politika publikoen agendan ere zapalkuntzen aldiberekotasuna kontuan hartzeko beharra. Horretarako, *interseksionalitate politikoa* kontzeptua proposatu zuen. Izenondo horrekin adierazi nahi zuen interseksionalitateak errealitatearen zenbait plano jasotzen dituela.

Interseksionalitatea izan daiteke egunerokotasuneko bizi-esperientzietan islatzen den desberdintasun forma bat –horri *egiturazko interseksionalitatea* deitu zion–. Izan daiteke kultura eta bizitzaren plano sinbolikoan talde batzuek sufritzen duten ikusezintasun forma bat –*ordezkapenarekin lotutako interseksionalitatea*–. Eta, azkenik, izan daiteke zapalkuntza batzuen aurrean esku ez hartzea –*interseksionalitate politikoa*–. Azken hori interesatzen zaigu: mugimendu sozialek eta politika publikoek zapalkuntza forma guztien aldi bereko efektuak, nahita edo nahi gabe, kontuan ez hartzea. Ikuspegi horretatik, *interseksionalitate politikoa* ikusarazten du praktikan aldi berean aritzen diren desberdintasunei erantzun zatikatuak ematea (alde batetik generoa, bestetik arraza, bestetik jatorria, etab.) problematikoa dela. Horrek administrazio publikoei ezartzen dien erronka handia da.

Aurreko atalean saiakera horretan sortu diren tresna eta mugarri gutxi batzuk azaldu ditugu: legedian aitortza sinbolikotik, kuota edo bestelako ekintza positiborako neurri zehatzagoetara. Asmoa ez da izan horien sistematizazio osatu bat ematea, baizik eta irudikatzea genero politiken barruan badaudela ikuspegi *nolabait* interseksionala txertatzeko aukerak. Edo, bestela esanda, marko honetan jadanik existitzen direla generoa eta bestelako desberdintasun formen gurutzaketa integratzeko tresna eta estrategiak.

Aurretik esan dugunez, berdintasun politika publikoak ia-ia hasieratik izan dute emakumeen aniztasunarenganako nolabaiteko sentsibilitatea. Kezka hori hainbat modutan eta, batez ere, hainbat hitzekin islatu da politika publikoen diskurtsoan: aniztasuna, emakume kolektibo jakinei aipamenak eta, batez ere, desberdintasun anizkoitzen kontzeptua. Azken urteetan, ordea, zerrenda horri beste hitz bat gehitu zaio, eta interseksionalitatea sartzen hasia da berdintasun politiken hiztegiari.

Joera izan gabe, baina modu adierazgarrian, 2011. urtetik aurrera Estatuan onartu diren 13 berdintasun legeetatik 5ek interseksionalitatea aipatzen dute zuzenean. Adibide hurbiletara joanez, 2023an berriro zen euskal berdintasun legeak interseksionalitatea gehitu du bere oinarritzko printzipioetan. Hala dio:

4. Taula. Interseksionalitateari aipamena EAEko 2023ko Berdintasun Legean

3. artikulua.– Printzipio orokorrak. (...)

1.– Tratu-berdintasuna. (...)

EAEko botere publikoek diskriminazio anizkoitzari aurre egingo diote, eta emakumeen edo emakume-taldearen oinarritzko eskubideak benetan gauzatzen direla bermatuko dute, emakume horiek bereizkeria-egoerak sor ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo soziala, hizkuntza, erlijioa, kultura, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, familia-eitea, desgaitasuna, adina, sexu-joera sexu-edo genero-identitatea, genero-adierazpena, landa-eremukoa izatea, migratzailea, errefuxiatua, seropositiboa, guraso bakarra izatea edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal, sozial edo administratibo. (...)

8.– Ikuspegi interseksionala txertatzea.

EAEko botere publikoek ikuspegi interseksionala sustatu behar dute beren politika publikoetan, eta horrek esan nahi du, lege honen ondorioetarako, kontuan hartu behar dela nola sexuak edo generoak harremana duen 3.1 artikulua azken atalean aipatutako gainerako faktoreekin, maila askotan eta maiz aldi berean, nola sortzen diren identitate gainjarriak eta interseksionatuak, bai eta egoera eta botere- eta zapalkuntza-ardatz desberdinak eta elkarri lotutakoak ere.

Iturria: 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.⁴

Emakumeen arteko aniztasuna izendatzeko erabili diren kontzeptuen eta interseksionalitatearen arteko bereizketa lerroak marraztea ez da erraza. Diskriminazio anizkoitzen eta interseksionalitatearen artekoari dagokionez, diziplina juridikoan badaude esaten dutenak praktikan ez dagoela bataren eta bestearen arteko desberdintasunik (Rey Martínez, 2003). Zientzia politikoetan, Ange-Marie Hancockek orain dela ia bi hamarkada desberdintasunak aztertzeko ikuspegi unitarioa, anizkoitza eta interseksionala bereizi zituen (2007). Baina haren proposamena oso normatiboa da eta ez du apenas islarik izan politika publikoetan (Lombardo eta Bustelo, 2012). Horrela ulertzen da diskurtso politiko, militante eta akademikoetan, modu bereizezinean erabiltzea kontzeptu horiek, sinonimoak balira bezala. Antzeko orbitaren inguruan biraka dabilta biak, eta horiekin batera, halaber, aniztasuna, pobrezia feminizazioa eta emakume kolektiboaren aipamen bereziak. Guztiek dute premisa hau: zapalkuntzetan desberdintasun egitura batek baino gehiagok eragiten dutela, eta konplexutasun hori kontuan hartu behar dugula desberdintasunei aurre egiteko martxan jartzen ditugun diagnostiko eta proposamenetan.

Politika publikoen maila diskurtsiboan, beraz, kontzeptu horien arteko bereizketa terminoen arteko bereizketa besterik ez da, eta ideia berdina izendatzen duten hitz desberdinak dira. Horrela, badirudi interseksionalitatearen erabilera nominalak –diskurtsiboak– ez dakarrela aldaketa kualitatiborik politika publikoen praktikan. Lan honetan guk hurbilpen hau eztabaidatu nahi dugu: nahasmen kontzeptual hori, ikuspegi interseksionala bera aplikatzeko oztopoa ez ezik, esperimentaziorako eta politika publikoetan begirada berritzaileak eta eraldatzaileak txertatzeko muga ere badela uste dugu. Teoria kritikotik datorren ekarpentzat hartuta (Collins, 2019), gure ikuspegia da interseksionalitatea aukera bat izan

4 Hemendik jasoa:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2023001471>

daitekeela genero zeharkakotasunaren garapen eraldatzaile eta parte hartzeko batean sakontzeko. Horretarako, ezinbestekoa da administrazio publikoaren inertzia teknokratikoei aurre egingo dieten tresna eta eremuekin esperimentatzea.

4.3. Interseksionalitatearen aukera eraldatzaileak politika publikoetan: dekalogo bat

Atal honetan, ikuspegi interseksionalak politika publikoetan lur hartzeko praktika eraldatzaileen inguruan hausnartu nahi dugu. Batez ere EAEko administrazio publikoetan ekoizten diren genero berdintasun politikak ditugu buruan, baina horrek ez du baztertzen bestelako lan esparruetara edo lurralde testuinguruetara eramatea. Dekalogo hitza oso normatiboa da: hau da, gauzak nola izatea gustatuko litzaigukeen ari gara adierazten. Asmoa da jarraian azalduko ditugun dimentsioek abiapuntu bat osatzea, agertoki bakoitzak bere egoerara moldatuko dituenak halabeharrez. Eta, batez ere, hausnarketa kritikorako abagune bat izatea.

- *Desberdintasun forma bat... eta politika publikoetan esku hartzeko bestelako moduak arakatzeko aitzakia ere bai*

Interseksionalitatea desberdintasun forma bat da. Baina haratago joan gaitezke, ideia hau arakatzeko: interseksionalitatea, desberdintasun forma bat izateaz gain, administrazioak zapalkuntzen aurka esku hartzeko darabiltzan marko eta tresnez interpretatzeko aitzakia ere bada.

Hainbat autorek interseksionalitatea “sentsibiltate analitiko” gisara izendatu dute (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013), eta gu bat gatoz hurbilpen horrekin. Are gehiago: politika publikoen alorretik pentsatuz gero, interseksionalitatea sentsibiltate analitiko eta *praktiko* bat ere badela ulertzen dugu, gaitasun eraldatzaile handia duena. Kontuz: ez gara metodologia batez ari –hau da, pauso jakin batzuek osatutako prozedura batez–, nahiz eta ikuspegi interseksionalerako baliagarriak izan daitezkeen metodologiak egon. Adibidez, politika publiko bat ikuspegi interseksionaletik ebaluatzeko metodologia partizipatiboak lagungarriak izan daitezke. Baina ez gara horretaz ari.

1961. urtean Thomas Kuhnek “paradigma” kontzeptua landu zuen. Kuhnek bere hausnarketa zientziaren filosofiatik, alegia, ezagutzaren alorretik egin bazuen ere, landutako paradigmen kontzeptuak balio digu azaldu nahi dugunerako. Honela definitu zuen paradigma: “Sinesmen, balio eta tekniken konstelazio bat, komunitate jakin bateko kideek partekatzen dutena” (1992: 292). Horrela ulertuta, paradigmak gure ikuspegi eta praktikak gidatzen dituzten eskema mental inplizituak dira, konturatu gabe jarraitzen diegun pentsamoldeak. Baina paradigmak ez dira zurrunik, ziklikoak dira. Horrek esan nahi du sortu, egonkortu eta krisian sartzen direla. Paradigma bat krisian sartuko da partekatutako ideia multzo horrek arazo berriei erantzunak emateko gaitasuna galtzen dutenean.

Modu antzekoan, interseksionalitatearen garapenak, genero berdintasun politika publikoek aniztasunari eta zapalkuntzen konplexutasunari erantzuteko dituzten mugak agerian jarri dituzten ekarpenak plazaratu ditu, eta, horrekin batera, desberdintasunen aurrean esku hartzeko forma berriei buruzko hausnarketak.

- *Feminismoa eta haren lorpen politikoak ardatz*

Paradigma hitza hotsandiko hitza da, beharbada. Ez gara ari jadanik existitzen diren tresna eta ikuspegien haustura batez, baizik eta orain arte desberdintasunen aurka egiteko jorratu diren marko, diseinu instituzional eta tresnak osatzen dituen hurbilpen batez. Interseksionalitateak zapalkuntzen konplexutasunean eta horiei aurre egiteko baliabideetan sakontzeko aukera bat ematen digu. Jakinda bidea ez dela hemen hasten,

aurretiko ibilbide luzea eginda badagoela, eta ikuspegi intersektionala lurreratzeko edozein saiakera mugimendu feministaren eta berdintasun politika publikoen genealogian kokatu behar dela.

- ***Garapen instituzional eskasa, edo teknokraziari aurre egiteko aukera bat***

Ibilbide luze horrek fruituak eman ditu. Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, genero berdintasun politikek garapen instituzional nabaria izan dute Estatuan eta Hego Euskal Herrian. Horrek, ikusi bezala, bere argiak eta ilunak izan ditu.

Itzalen artean, burokratizazioa. Burokratizazioa esanez, zera esan nahi dugu: prozedurak eta ez prozesuak sustatzen dituen kudeaketa forma, ikuspegi teknikoa gailentzen duena ikuspegi politikoaren gainetik, eta politiken estandarizazioa sustatzen duena, sormenaren gainetik. Badira fenomeno horri izena jarri diotenak: orain dela ia 20 urte Judith Squires politologoak (2007) kezka agertu zuen genero zeharkakotasunerako politika publikoen garapena ezagutza aditura mugatzearekin (*bureaucratic expertise*), bestelako ezagutza formak (batik bat, militantea eta esperientziala) baztertuz. Jone Martínez-Palaciosen antzeko diagnostikoa egin du partaidetza politiken alorrean (2021), agerian jarritz burokratizazioak eta teknokratizazioak asmo eraldatzailea duten politikei dakartzkieten mugak.

Modu horretara, genero berdintasun politiken esperientziak paradoxa bat erakusten digu: erakundetze maila altuak ez duela zertan intzidentzia maila altua ekarri (Zugaza, 2024). Horrela bereizi ahal dugu garapen instituzionala, alde batetik, eta eragin soziala, bestetik. Ikuspegi horretatik, intersektionalitatearen garapen instituzional eskasa, ahultasun gisa baino gehiago, aukera gisa ikusten dugu, hain zuzen ere, tresna edo baliabide ez-burokratikoekin esperimentatzeko.

- ***Partaidetzazko eremuekin hartu-emanen***

Ez dakigu administrazio publikoak dituen inertzia teknokratikoak desagerraraztea posible den. Baina errealitate horren aurrean, partaidetza burokratizaziorako kontrapisu bat izan daiteke. Partaidetza esaten dugunean buruan ditugu, alde batetik, herritarrek parte hartzako mekanismo eta eremu erakundetuak; hau da, instituzioen esku hartzearekin funtzionatzen dutenak, hainbat autonomia maila eta gobernantza ereduekin: berdintasun kontseiluak, emakumeen etxeak eta bestelako partaidetza-guneak. Eta, beste alde batetik, instituzioetatik kanpo jarduten diren herri mugimenduak: mugimendu feminista, antiarrazista, emakume pentsiodunak, etab.

Politika publikoak herritar antolatu eta ez-antolatuen partaidetzarekin diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzen direnean, ikuspegi intersektionala txertatzeko aukerak handitzen dira. Ildo horretan, politika publikoetan intersektionalitateak izan dezakeen garapena hainbat partaidetza-gunez elika daiteke. Aipatuko ditugun ezaugarriak ezaugarri potentzialak dira, noski. Partaidetza ez delako, bere horretan, "konponbide" bat.

Lehenik eta behin, politika publikoen fase bakoitzari behetik gorako ikuspegi batetik heltzeak aniztasuna txertatzea errazten du. Administrazio publikoan lan egiten duten profesionalen profila nahiko homogeneoa da. Ondorioz, politika publikoen diseinu eta inplementazioaz arduratzen diren agenteen ikuspegia haien klase, jatorri edota arraza kokapenak mugatuko du. Politika publikoak herritarren partaidetzarekin hartu-emanen aurrera eramateak ikuspegi hori zabaltzeko aukerak ematen ditu, aniztasuna txertatuz arazoan identifikazioan, proposamenetan edo problematika kokatu den markoan bertan.

Bigarrenaz, administrazio publiko burokratikoa zurruna da eta modu zatikatuan antolatzen da. Modu oso desberdinean, mugimendu sozialak, herri mugimendua, komunitate lanerako guneak eta herritar ez-antolatuez osatutako bestelako partaidetzarako eremuek antolaketa egitura malguagoak eta horizontalagoak dituzte. Egitura horiekin, elkarrekin topatzeko eremuak gertagarriagoak dira administrazio publiko batean baino –partekatutako eremu horiek izan daitezke eztabaidarako, arazo puntualen inguruan antolatzeko edota problematika komunak tratatzeko–. Horrelako dinamikek

hainbat botere egiturak zeharkatutako banako edo taldeek arazo baten gainean duten ikuspegiaren arteko trukea errazten dute. Truke horretan, baliteke enpatiak, aliantza estrategikoak edota gatazka guneak loratzea.

- ***Etxe barruan: trukerako eta adimen kolektiborako guneetan sakondu***

Ikuspegi intersektionalak administrazio publikoetan topatzen duen “korapilo” nagusietariko bat administrazioaren antolaketa zatikatua da: administrazioa etxe handi bat da, banatutako logela askoz osatua dagoena. Desberdintasun forma desberdinen aurka bideratutako politiketan pentsatzen badugu, kontraesana agerikoa da: intersektionalitateak desberdintasunen ikuspegi holistikoa? bultzatzen du, eta administrazioak ekoizten dituen politika publikoek ikuspegi partzialak eta zatikatuak dituzte oinarri.

Are gehiago, gela bakoitzak bere ibilbidea du. Ibilbide horretatik eratorri dira sail bakoitzaren lehentasunak, lan egiteko erak eta darabiltzan ezagutzak. Adibidez, genero berdintasunaz arduratzen den arloaren ibilbidea, markoa eta darabiltzan tresnak desberdinak dira politika sozialen arloak izan duen ibilbide, marko eta erabilitako tresnekin alderatzen badugu. Eskumenen zatiketa hau ez da, bere horretan, negatiboa. Esan genezake, inkluso, administrazioak aurrean duen errealitatearen konplexutasunari heltzeko beharrezkoa dela. Arazoa ez da antolaketa forma hau, baizik eta antolaketa forma honen kudeaketa: alegia, arlo desberdinen arteko komunikazio, elkartruke edo elkarren arteko ezagutzarako baliabiderik ez dagoenean.

Nola arnastu dezake ikuspegi intersektionalak antolaketa kultura horretan? Quim Brugué, adibidez, diagnostiko horren aurrean “*badakiten erakundeetatik ikasten duten erakundeetarako*” urratsa proposatzen du (2022). Horrekin azaldu nahi digu “gela” edo arlo bakoitzak metatu duen jakintza espezializatua ez dela nahikoa aurrean ditugun arazoen konplexutasunei aurre egiteko. Larrialdi klimatikoa, etxebizitzaren problematika, zaintzen krisia eta halako auzien aurrean galdera ez da nola esku hartu (ezagutza espezializatua), baizik eta zer egin (adimen kolektiboa). Ezagutza espezializatutik adimen kolektiborako urratsa egiteko, administrazio barruan arazo bakoitzari heltzeko truke eta deliberaziorako eremuetan sakontzea proposatzen du. Brugué ez du intersektionalitateaz hitz egiten, baina ikuspegi intersektionalerako aukerak ikusten ditugu proposamen horretan, hainbat desberdintasun formatan esku hartzen duten arloen arteko ikuspegietatik abiatuta, politika publikoen formulazio eta diseinurako hurbilpen sortzaile bat planteatzen duelako.

- ***Kooperazioa eta ad hoc lantaldeak***

Ikuspegi intersektionala elikatuko duten trukerako eta adimen kolektiborako eremuetan sakontzeak sailen arteko kooperazioa eskatzen du. Kooperazioa eta lankidetzak gauza desberdinak dira: kooperazioaren printzipioak elkarren arteko mendekotasunari aitortza egiten dio. Nik bestea behar dut eta besteak ni behar nau helburu partekatatu bat lortzeko. Bestearen zirriborroari ekarpenak egitea baino gehiago, dokumentua elkarrekin pentsatzera derrigortzen gaitu printzipio horrek.

5. Taula. Intersektionalitatea arazo zehatzen bidez landu: Terrassako udalaren adibidea

Ikuspegi metodologiko batetik, badaude politika publikoak diseinatzeko hurbilpen honekin esperimendatu duten erakundeak. Terrassako udaletxeak (Katalunia) udal barruan ikuspegi intersektionalaren lanketa abiarazteko aurrera eramandako proiektu pilotu baten esperientzian, sailetako ordezkarien arteko eztabaida eta trukerako guneak antolatu ziren (Coll-Planas eta Solà-Morales, 2019). Topaketa horietan arazo zehatzen inguruan lan egiten zen (adibidez, kaleko segurtasuna), diagnostikoak eta proposamenak formulatuz. Bakoitzak bere sailetik zekarren ikuspegia eta ezagutza (hirigintza, genero berdintasuna, gizarte politikak, gazteria eta adinarekin lotutako politikak...) beste saileko kideekin partekatzen zen. Modu horretara, desberdintasun forma zehatzez arduratzen ziren sailen arteko “kutsadura gurutzatua” izan zen.

- **Galderak eginez aurrera egin**

Ikuspegi intersektionalak jarrera gogoetatsua eskatzen du. Alde batetik, politika publikoak diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzen ditugu horretarako ahalmen edo boterea daukagulako. Horrek politika horiek jasotzen dituztenekiko pribilegio harreman batean kokatzen gaitu. Ildo horretan, administrazio publikoaren jardunaz eta, hortaz, politika publikoez ari garenean, garrantzitsua da kontuan izatea administrazioko profesionala izatea botere ardatz bat dela bere horretan. Bestalde, jarrera gogoetatsuak zerikusia dauka egiten duguna aldian-aldian berrikustearekin.

Berrikuspen lan horrek eskatzen du aurrera egitea norberak bere buruari galderak eginez. Horretarako orientagarriak izan daitezke intersektionalitatearen praktikan sakontzeko dauden material batzuek sortutako galdera sortak (Hankivsky, 2012; Coll-Planas eta Sola-Morales, 2019).

6. Taula. Politika publikoetatik intersektionalitatearen praktikan sakontzeko egin ditzakegun galderen ereduak

Norberaren kokapenarekin lotutako galderak

Iturria: Olena Hankivsky, An intersectionality-based policy analysis framework. Galdera guztiak gida honetan eskuragarri.

- Politika publikoen zein arlotan lan egin duzu?
- Zein dira zure balio pertsonalak, esperientziak, interesak, sinesmenak eta konpromiso politikoak? Ba al daukate harremanik esperientzia horiek, politika eremu honetan tratatzen diren egiturazko desberdintasunekin? Generoa, klase ekonomikoa, arraza, hizkuntza...

Arazoa zehaztean egiteko galderak

Iturria: Gerard Coll-Planas eta Roser Solà-Morales, Terrassako Udalarekin lankidetzan. Reflexiones para elaborar planes, programas y proyectos con perspectiva interseccional.

Galdera guztiak hemen eskuragarri: <https://igualtatsconnect.cat/es/guia-recursos/>

- Zein problematika landu nahi da? Zergatik hartu da arazotzat?
- Nork identifikatu du? Nor dago afektatuta eta nor dira arazoan inplikaturako agenteak?
- Problematika ikuspegi anitzetatik zehazten da, talde bakoitzari nola eragiten dion identifikatzeko?
- Testuingurua (historikoa, soziala, lurraldea...) kontuan hartuta, zein desberdintasun ardatzek daukate garrantzi gehien?
- Ba al dago egiturazkoa ez den baina kontuan hartu beharko genukeen bestelako desberdintasun ardatzik (itxura fisikoa, ama izatea, etab.)?
- Ardatz horien arteko gurutzaketa garrantzitsurik al dago?
- Zein zerbitzu inplikatu beharko lirateke problematika horretan esku hartzean?
- Zein pribilegio, aurreiritzi edo estereotipo ari gara birsortzen (talde teknikoko kideak, kaltetutako taldeak edota inplikaturako beste agenteak) arazoaren zehaztapenean, edo kaltetutzat jotzen ditugun taldeen identifikazioan?

Iturriak: Hankivsky, 2011 eta Coll-Planas eta Morales, 2019tik moldatua.

Material horiek, intersektionalitatea politika publikoetan martxan jartzeko berariazko metodologia bat eskaini baino gehiago, galderen bidez lan egitea proposatzen dute. Galdera horiek proiektuen fase guztietan egingo dira, eta balioko dute hausnartzeko zein puntutara arte ari garen lantzen ikuspegi intersektionala. Jakinda galdera on batek ez daukala bat-bateko erantzunik... Horregatik da galdera bat.

5. ondorioak

Egindako ibilbide historiko eta kontzeptualak erakusten du genero zeharkakotasuna funtsezko estrategia izan dela genero desberdintasunak politika publikoen erdigunean kokatzeko. Hala ere, instituzionalizazio prozesuak arrakastak izan dituen arren, mugak ere agerian jarri dira: ikuspegi teknokratikoak eta despolitizazio joerek askotan lausotu dute haren ahalmen eraldatzailea. Horrek adierazten du berdintasunaren aldeko politikak ezin direla oinarri administratibo hutsean geratu; aitzitik, botere harremanen analisi feministan eta aldaketa sozial sakonaren logikan sustraitutako marko politiko sendoak behar dituzte.

Illo horretan, testu honek erakusten du genero berdintasun politikek historian zehar emakumeen arteko aniztasuna diskurtsiboki aitortu dutela, baina aitortza horrek ez duela beti ekarri desberdintasun egituren elkarreragin konplexuei erantzuteko politika integral eta koherenteak garatzea. Aniztasuna, diskriminazio anizkoitzak eta kolektibo jakinen izendapena tresna baliagarriak izan diren arren, askotan sektorialtasunaren logikan geratu dira, eta zapalkuntzak modu sailkatuan ulertzea behartu dute. Horrek erakusten du beharrezkoa dela ikuspegi estrukturalago bat, desberdintasun ardatzen arteko harreman dinamikoak egoki txertatuko dituen.

Interseksionalitateak aukera esanguratsua eskaintzen du genero zeharkakotasunaren ikuspegia birpentsatzeko eta politika publikoetan sakontzeko. Ez da soilik kontzeptu berri bat –ikuspegi analitikoa eta aldi berean proposamen politikoa–, administrazioaren inertzia teknokratikoak kolokan jarri eta berrikuntza instituzional eta demokratikoak sustatzeko gaitasuna duena baizik. Interseksionalitateak, bere izaera kritiko eta eraldatzaileari eutsiz gero, aukera ematen du politika publikoetan justizia sozialaren dimentsioak modu integralean txertatzeko, eta aldi berean emakume guztien bizitzetan eragiten duten zapalkuntza moduen konplexutasuna modu egokian aitortzeko eta horiei erantzuteko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- AHEDO, Igor (2017): "Participación, género y agnosia", hemen: MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone (koord.): *Participar desde los Feminismos*, Icaria, Bartzelona, 9-10.
- ALONSO, Alba (2015): *El mainstreaming de género en España: hacia un compromiso transversal con la igualdad*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- ALONSO, Alba, María BUSTELO, Maxime FOREST, eta Emmanuela LOMBARDO (2012): "Institutionalizing Intersectionality in Southern Europe", hemen: KRIZSAN, Andrea, SKJEIE Hege eta Judith SQUIRES (arg.): *Institutionalizing Intersectionality. The Changing Nature of European Equality Regimes*. Palgrave Macmillan, Londres, 148-178.
- BACCHI, Carol Lee (2009): *Analysing Policy: What's the Problem Represented to be?* Pearson, Londres.
- BEAL, Frances (2008): "Double Jeopardy: To Be Black and Female". *Meridians*, 8(2), 166-176.
- BIGLIA, Barbara eta Conchi SAN MARTÍN (2007): "Del bastidor hacia prácticas colectivas en tésituras postmodernas, narraciones contra las violencias de género", hemen: BIGLIA, Barbara eta Conchi SAN MARTÍN; (koord.): *Estado de Wonderbra*. Virus Editorial, Bartzelona, 5-21.
- BONET, Jordi (2003): "Problematizar las Violencias Sociales frente a las Violencia(s) de Género" en BIGLIA, Bárbara eta Conchi SAN MARTÍN (koord.): *Estado de Wonderbra*. Virus Editorial, Bartzelona, 35-49.
- BRUGUÉ, Quim (2022): *Organizaciones que saben, Organizaciones que Aprenden*, Instituto Nacional de Administración Pública (INAP), Madril.
- BUSTELO, María (2005): "Evaluación de Políticas Públicas: Conceptualización, Modelos y Enfoque de Género". *Presupuesto y Gasto Público*, 39, 65-84.
- BUSTELO, María (2016): *Evaluation for Gender Equality: A Conceptual Framework and some Practical Experiences*. *UN Women Working Paper Series*, (5), 1-30.
- BUSTELO, María eta Emanuela LOMBARDO (2007): "¿Qué hay Debajo de la Alfombra de las Políticas de Igualdad? Un Análisis de 'Marcos Interpretativos' en España y en Europa". *Revista Internacional de Sociología*, 65(47), 53-78. <https://doi.org/10.3989/ris.2007.i47.68>
- CHO, Sumi, Kimberlé Williams CRENSHAW eta Leslie McCALL (2013): *Toward a Field of Intersectionality Studies: Theory, Applications, and Praxis*. *Signs*, 38(4), 785-810.
- COLLINS, Patricia Hill (2019): *Intersectionality as Critical Social Theory*. Duke University Press, Durham.
- COLL-PANAS, Gerard eta Roser SOLÀ-MORALES (2019): *Guía para Incorporar la Interseccionalidad en las Políticas Locales*. Ajuntament de Terrassa: Igualdades Conectadas, Terrassa.
- COMBAHEE RIVER COLLECTIVE. (2012): "Un Manifiesto Feminista Negro", hemen: Platero, Raquel (Lucas) (arg.), *Intersecciones: Cuerpos y Sexualidades en la Encrucijada*, Edicions Bellaterra, Bartzelona, 75-86.
- CRENSHAW, Kimberlé Williams (1989): "Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine. Feminist Theory and Antiracist Politics", *The University of Chicago Legal Forum*, 140, 139-167.
- CRENSHAW, Kimberlé Williams (1991): "Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color", *Stanford Law Review*, 43(6), 1241-1299.

- CRENSHAW, Kimberlé Williams (2019): CIJ President Kimberlé Crenshaw emandako diskurtsoa Gunda Werner Institutuak antolatutako galan. 2019ko apirilaren 28an. Center of Intersectional Justice Center-ean (Berlin) aurkeztutako lana.
- DAVIS, Angela (2005 [1981]): *Mujeres, Raza y Clase* (Ana Varela Mateosek itzulita), Akal, Madril.
- EPELDE, Edurne, Miren ARANGUREN eta Iratxe RETOLAZA (2015): *Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Kronika bat*. Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro Feminista, Andoain.
- ESPINOSA FAJARDO, Julia eta María BUSTELO, M. (2019): "¿Cómo Evaluamos el Éxito de las Políticas de Igualdad de Género? Criterios y Herramientas Metodológicas". *Revista Española de Ciencias Políticas*, 49, 151-172. <https://doi.org/10.21308/recp.49.07>.
- FRASER, Nancy (1990): "¿Qué tiene de Crítica la Teoría Crítica? Habermas y la Cuestión del Género", hemen: BENHABIB, Seyla eta Drucilla CORNELL: *Teoría Feminista y Teoría Crítica*. Ediciones Alfons El Magnánim, Valentzia, 49-89.
- FRASER, Nancy (2008): "Reframing Justice in a Globalizing World", hemen: FRASER, Nancy eta Kevin OLSEN (kol.), *Adding Insult to Injury: Nancy Fraser Debates her Critics*. Verso, Bartzelona, 273-291
- FRASER, Nancy (2013): "¿Triple movimiento? Entender la Política de la Crisis a la Luz de Polanyi". *New Left Review*, 81, 125-139.
- FRIEDAN, Betty (1963): *The Feminine Mystique*. W.W. Norton, New York.
- GELAMBÍ, Mónica (2015): La Gestión Transversal de Género en Momentos de Crisis. Análisis de los Municipios Catalanes. *Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 14, 1-14.
- ¡GÓMEZ, Laura (2025): Elkarrizketa sakona, 2025eko irailaren 4a.
- HANCOCK, Ange-Marie (2007): "When multiplication does not Equal Quick Addition: Examining Intersectionality as a Research Paradigm" *Perspectives on Politics*, 5(1), 63-79.
- HANKIVSKY, Olena (2012): *An Intersectionality-Based Policy Analysis Framework*. Institute for Intersectionality Research and Policy, Simon Fraser University, Vancouver.
- KING, Deborah (1988): "Multiple Jeopardy, Multiple Consciousness: The Context of a Black Feminist Ideology". *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 14, 42-72.
- KUHN, Thomas (1992): *La Estructura de las Revoluciones Científicas*. Fondo de Cultura Económica, Bogota.
- LOMBARDO, Emanuela eta María BUSTELO (2012): "Political Approaches to Inequalities in Southern Europe: A Comparative Analysis of Italy, Portugal, and Spain", *Social Politics: International Studies in Gender, State & Society*, 19(4), 572-594.
- LOMBARDO, Emanuela eta Petra MEIER (2006): "Gender Mainstreaming in the EU: Incorporating a Feminist Reading?" *European Journal of Women's Studies*, 13(2), 151-166. <https://doi.org/10.1177/1350506806062753>
- LÓPEZ, Silvia, Elin PETERSON eta Raquel (Lucas) PLATERO (2014): Políticas Públicas", hemen: LOIS, Marta eta Alba ALONSO (koords.), *Ciencia Política de Género*. Akal, Madril, 161-188.
- LORDE, Audre (1982): *Learning from the 60's*. Harvard Unibertsitatean aurkeztutako lana. Massachusetts, AEB.
- MARTÍNEZ-PALACIOS, Jone (2021): *El Giro Participativo Neoliberal: Institucionalización de la Participación Ciudadana en España (1978-2017)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Autonomia Erkidegoa.

- PAREDES, Julieta Elisa (2018): *1492 Entronque patriarcal: la Situación de las Mujeres de los Pueblos Originarios de Abya Yala después de la Invasión Colonial de 1492*. Tesia. FLACSO. Argentinako Egoitza Akademikoa, Buenos Aires.
- PATEMAN, Carol (1988): *The sexual contract*. Stanford University Press.
- PLATERO, Raquel (Lucas) (2012): *Intersecciones: Cuerpos y Sexualidades en la Encrucijada*. Edicions Bellaterra, Bartzelona.
- REY MARTÍNEZ, Fernando (2008): "La Discriminación Múltiple. Una Realidad Antigua, un Concepto Nuevo", *Revista Española De Derecho Constitucional*, (84), 251-283.
- SQUIRES, Judith (2005): "Is Mainstreaming Transformative? Theorizing Mainstreaming in the Context of Diversity and Deliberation" *Social Politics*, 12(3), 366–388.
- SQUIRES, Judith (2007): "Engendering Governance? Mainstreaming", hemen: SQUIRES, Judith (arg.), *The New Politics of Gender Equality* Palgrave Macmillan, New York, 136-155.
- URETA, Miriam (2022): *Partidos-Movimiento y profundización democrática. Gobiernos locales en Cataluña y País Vasco: los casos de Decidim Ripollet y La Voz del Pueblo (2017–2022)* Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Autonomia Erkidegoa.
- VERLOO, Mieke (2005): "Displacement and Empowerment: Reflections on the Concept and Practice of the Council of Europe Approach to Gender Mainstreaming and Gender Equality", *Social Politics*, 12(3), 344–365.
- WALBY, Sylvia (2005): Gender Mainstreaming: Productive Tensions in Theory and Practice. *Social Politics*, 12(3), 321–343. <https://doi.org/10.1093/sp/jxi018>.
- YOUNG, Iris Marion (1996): "Communication and the Other: Beyond Deliberative Democracy" hemen: Seyla Benhabib (arg.), *Democracy and Difference: Contesting the Boundaries of the Political*. Princeton University Press, New Jersey, 120-135.
- YOUNG, Iris Marion (2002): *Justice and the Politics of Difference*. Princeton University Press, New Jersey
- ZUGAZA, Uxue (2023): *Entre los Caminos Trillados y las Líneas de Deseo. La Institucionalización de la Interseccionalidad en España (1983-2021)*. Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Autonomia Erkidegoa.
- ZUGAZA, Uxue (2024): "La Interseccionalidad en el Trabajo Institucional Municipal: Reflexiones desde el punto de vista del "Arraigo". *Oñati Socio-Legal Series*, 14(4), 887–908. <https://doi.org/10.35295/osls.iisl.1882>.

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetza eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

16. Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak. Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. Txina: Garapen eredua birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren eraketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak. Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa1, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurretzaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKIko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeo erronka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo. Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiaren erronka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

31. **Zaintza eta zahartzaroa: XXI. mendeko erronkak.** Matxalen Legarreta-Iza. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Uzuri Castelo Moñux. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Alaitz Uriarte Goikoetxea. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Maider Barañano Uribarri. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Marina Sagastizabal Emilio-Yus. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
32. **Ekofeminismoak. Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea.** Amaia Pérez Orozco. Colectiva XXK. Feminismoak, pentsamendua eta ekintza.
33. **Sexu eta genero aniztasuna aztertzeako gakoak.** Aimar Rubio Llona. Hegoako Kolaboratzailea, UPV/EHU.
34. **Zientzia eta feminismoak: zientziari bizitzaren iraunkortasunetik begiratzen.** Vane Calero Blanco. Sorkin, alboratorio de saberes / jakintzen iraultegia.
35. **Garapen jasangarriaren oinarri esentzialistak. 2030 Agendaren inguruko gogoeta filosofikoa.** Juan Telleria. Filosofia Saila, PRAXIS ikerketa taldea eta Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
36. **Inurriak baikin.** Kolapsoa ez da saihestezina gizarte konplexuetan. Gorka Bueno. Ekopol ikerketa-taldea. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
37. **Gizarte desberdintasunak osasunean: zer eragin dute euskadiko herritarrengan?** Amaia Bacigalupe. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erika Valero. Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Erizaintza 2 Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Yolanda González-Rábago. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK. Unai Martín. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldea – OPIK.
38. **Zer da Desazkundera?** Adrián Almazán. THECO ikerketa-taldea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea.
39. **Etika eta garapena.** Imanol Zubero. Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, UPV/EHU.
40. **Lanaren Ekonomia, lan merkatuaren azterketa soziologikotik Euskal Herriko lan harremanen garapen juridikora arte.** Endika Alabort Amundarain. Euskal Herriko Unibertsitatearen Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoko Saileko irakaslea. Andrea de Vicente Arias. Euskal Herriko Unibertsitatearen Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saileko irakaslea. Eki Etxebarria Respaldiza. Herriko Unibertsitatearen Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea. Jon Bernat Zubiri Rey. Euskal Herriko Unibertsitatearen Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea.
41. **Zientzia eta Teknologiari begirada giza garapenetik eta eraldaketa sozialetik.** Unai Villena Camarero, Joseba Sainz de Murieta Mangado. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
42. **Genero zeharkakotasunetik interseksionalitatera: genealogiak, garapen instituzionala eta eraldaketarako aukerak politika publikoetan.** Uxue Zugaza Goienetxea, Miriam Ureta García. Politika eta Administrazio Zientzien saileko irakasle eta ikerlariak, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak.

